

**zakilixut**

© Olariagak



Hartzea Lopez Arana | BAIONA

**ATZEKOZ AURRERA**



GAIZKA IROZ

Lapurdiko 30 harakinek prentsaurreko berezi eskaini zuten atzo Baiona ttipian. Beren lanbidearen egoera latza izan zuten, besteak beste, hizpide.

**A** bisua emana zegoen : «prentsa txostena platerean aurkituko duzue». Baiona ttipiko Gemika ostatuan zuten kazetariak gomita, harakinekin batera aurtengo bildots esnea dastatzeko. Prentsaurreko ezohikoa, zizka-mizkekin, bazkariarekin eta ondokoarekin. Lapurdiko 30 bat harakinek kudeatzen duten elkarteak urtero antolatzen du hitzordua, «galtzear dagoen ofizioari» balioa emateko. Batzuk lan soinekoarekin etorri dira. Beraien berezitasuna ekoizpenak erostean datza. «Zuzenki goaz nekazariengana abereak hautatzera, hiltzera eraman aurretik».

Bazkarian, gai guziak dira aipagai : Ipar Korea, Mc Donalds, kirola, euskara, komunikabideak... gai nagusia postrerako dago erreserbatuak. Giroa bero-

# Prentsaurrekoa platerean

## Ipar Euskal Herriko harakinen elkarteak bildots esnearen kanpaina abiatu du

tzen doa platerak, atera ahala. «Kazetariok ardua handia duzue eta batzuetan justiziaz erabakiak eman baino lehenago epaitzen duzue jendea», dio batek, Buffalo Grill jatetxe kateak azken boladan Ingalaterratik ekarritako haragia legez kanpo saltzeak eragin duen polemikaz mintzatuz. Bitartean, platerak bata bestearen atzetik ekartzen dituzte: bildots anttola (gibela, bihotza eta birrikak), bildots saiheskiak, bildots sorbalda, bildots erre...

### Galtzen doan ofizioa

Postrearekin datoz diskurtso serioak. Denis Brillant elkarteko lehendakariak, bildots esnearen kalitatea azpimarratzeko, «Euskal Herriko gastronomiaren tradizioan» kokatzen du. «Zerrian bezala, bildotsean dena da on. Kalitateaz ez dago zer esanik, produktu sana da». Jateko ohiturei buruzko eztabaida pizten du : «ondare kulinarioak zaflako galanta bildu du azken 15 urte hauetan. Bezeroek, gero eta

gehiago, jadanik prestatuak diren produktuak erosten dituzte». Beste harakin batek azpimarratu du saltzen den haragiaren %80 supermerkatuetan saltzen dela. «Kolektibitateek ez digute gehiago guri erosten, ia dena izozturik edo xehaturik heldzen zaie». Okindegien ofizioarekin parekatzen dute beren egoera : «Nire karrikan, lehenago, bost harakin geunden, gaur egun bakarra nago. Inork ez du segida hartu nahi». Lan baldintza gogorreko egotzen die-

te egoera. «Goizeko 00:50ean hasi eta gaueko 21:00etan bukatzen dut», dio Angeluko harakin batek. Astean, beraz, 80 lan ordu inguru, eta igandetan ere lanetan. «Ofizialeen patua da, askok soldata minimoa baino gutxiago irabazten dute, duintasunez segitzen dute ofizioan».

Bildots esnearen kanpaina aste batez iraungo du. Kiloa 7 eurotan dago salgai. Gabonak izaten dira salmenta handien sasoia, eta martxoa arte, asteen bospasei bildots saltzen dituzte. Behi eroaren aferak bezeroak berriz harategi ttipietara hurbildu dituela onartzen dute denek. «Sukaldari kontseilariak bilakatu gara, gurea ofizio bikoitza da». Arno botilak hutsik daude; kafea hartu, eta bakoitza bere zereginetara itzuli da.

## Goizero, esnatu EGUNKARIArekin! Egin zaitez harpidedun eta jaso \* edredoi eder hau

- 08:00ak aurretik zure etxean.
- Zozketak, sarrerak, opariak, afariak, irteerak... egunero doan: Harpidedun txokoa.
- Promozioetan abantailak.



Talosa Etorbidea, 19  
(Antigua Berri)  
DONOSTIA

Ronda, 6 (Gros)  
DONOSTIA

www.loaldiak.com



\* Urtarrilaren 17tik 31ra  
Ditugunak agortu arte  
Garraio gastuak ez daude barne

### Zure datuak

Izen-abizenak \_\_\_\_\_

NA \_\_\_\_\_

Helbidea \_\_\_\_\_

P.K. \_\_\_\_\_

Herria \_\_\_\_\_

Telefonoa \_\_\_\_\_

Jaioteguna \_\_\_\_\_

Lanbidea \_\_\_\_\_

K/k zbk.



EGUNKARIA / HARPIDETZA  
Martin Ugalde Kultur Parkea • 20140 ANDOAIN  
Tel.: 943 300 222 / 902 300 223  
E-posta: harpidetza@egunkaria.com